

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**45/2020 Mozioa, uztailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Emergentsia Plana eguneratzeko aldaketa klimatikoaren eragin kaltegarriekin, muturreko fenomenoekin eta hondakin arriskutsuen kudeaketarekin lotutako lurraldeko bulnerabilitate berriei**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lurralde Orekaren V. Batzordeak, 2020ko uztailaren 9an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

45/2020 Mozioa, uztailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Emergentsia Plana eguneratzeko aldaketa klimatikoaren eragin kaltegarriekin, muturreko fenomenoekin eta hondakin arriskutsuen kudeaketarekin lotutako lurraldeko bulnerabilitate berriei.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Lurralde Historikoko Emergentsia Plana eguneratzeko aurreproiektu bat aurkezteko, 2021eko lehen seihilekoan.
2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, proiektuaren lehen zirriborroa prestatu eta batzordea osatzen duten talde politikoei bidali ondoren, Arabako Lurralde Historikoko Emergentsia Plana eguneratzeko eztabaida- eta azterketa-prozesu bat gaitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 9a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**